

Adibidez?

Zapalkuntzek kapitalismoaren ahalmena nola sendotzen duten erakusten du. Kapitala-lana erlazioa ez baita lantokira mugatzen. Arrazak eta generoak ere berebiziko eragina dute erlazio horretan, langile mota batzuek lan-merkatuan duten zapalgarritasuna areagotzen laguntzen baitute. ESTak erakusten digu langileak desberdin erreproduzitzen direla sozialki, des-

berdinak baitira langile beltz baten erreprodukzio soziala eta langile zuri batena eta, horren ondorioz, langile beltzek soldata apalagoa jasotzen dute lan-merkatuan. Baina, era berean, ume beltzak eskola kaskarragoetara joaten direnez, haien gaitasunak ere apalagoak dira gizartearentzat, poliziaren indarkeriaren ondorioz haien bizitza motzagoa izaten da... ESTak agerian uzten du, bada, langile-klasea modu des-

berdineren erreproduzitzen dela klase beraren barruan.

Horren bidez ez dugu desberdintasuna nabarmendu nahi, langile-klasearen funtsa baita desberdintasunak gainditu eta denok elkartzea. Baina gainditze hori ezin da ustezko batasun baten inguruan egin. Desberdintasunak izan badirela onartu beharra daukagu, kapitalismoak sortzen dituela, eta hortik abiatuta eta horiek aintzat hartuta borrokan bat egin dezakegu.



Marxek ari zela, Silvia Federicik zera dio Soldataren patriarkatua liburuan (Katakarak, 2017):

“Gai honi buruz esan gabe utzi zituenak ez dira distrakzioaren ondorioa, haren lan teoriko eta politikoak gairatzerik izango ez duten muga baten froga baizik”. Zer diozu hortaz?

Marxek ez zuen askorik idatzi familiari eta sexualitateari buruz, baina bai berak bai Engelsek behin eta berriz salatu zuten moral viktoriarra eta Marxen testuetan moral burgesaren kritika zorrotzak aurkitzen ditugu eta emakumeen askapenaren babes garbia.

Bestalde, *Kapitalaren I.* liburukiak erreproduzio sozialari buruzko ikuspegia eskaintzen digu. Osagabea da eta sakondu beharrekoa, baina ederki azaltzen digu irauahal izateko eskulanaren erreproduzioa ezinbestekoa zaiola kapitalismoari. Alegia, egunero lanera joateko gai izan behar dute langileek eta, horretarako, jana behar dute, atsedena, etxebizitza..., lanean egunero agortzen duten lanerako ahalmena berriztatu behar dute. Berriztatze hori da erreproduzio soziala. Modu askotara gertatzen da: ugaltzen biologikoaren bidez, migrazioaren bidez, eskalabozaren bidez...

Arazoa da, ordea, Marxek langileen autopreserbazio- eta ugaltzen-nahiaren esku uzten duela erreproduzio soziala, kapitaletik bereizitako prozesu bat baltz bezala, eta oker dabil horretan, kapitalak guztiz arautzen baitu langileen erreproduzioa.

Zer deritzozu interseksionalitatearen teoriari eta zertan bereizten da ESTtik?

Lehenik eta behin esan beharra daukat ez dakidala *interseksionalitate* kontzeptua Espainian zein testuingurutan erabiltzen den, baina AEBetan, aktibismoaren esparruan (ez naiz akademiak edo esparru teorikoez ari) “arrazismoaren aurkako”-ren sinonimo gisa erabiltzen da askotan. Eta, beraz, campus batean norbaitek “ni feminista interseksionala naiz” esaten badu, arrazismoaren aurka dagoen feminista dela esan nahi du. Interseksionalitatearen teoriari dagokionez, ez dut esango harekin ados ez

nagoenik, baizik eta, ESTak ez bezala, ez digula kapitalismotik ateratzeko pista-rik eskaintzen.

Teoria horrek funtsean esaten digu era desberdinetako zapalkuntzak daukela (generoa, klasea, arraza, gaitasuna...) eta elkar gurutzatzen direla, baina arazoa da ez digula azaltzen zergatik gurutzatzen diren. Ematen baitu ez dagoela inolako arrazoirik gurutzaketa horren azpian, guztiz arbitrarioa dela.

Baina arrazismoak zergatik dauka izugarriko pisua gizarte batzuetan eta beste batzuetan ez? Ni Indiatik nator, eta azalaren kolorean oinarritutako arrazismoa ez da zapalkuntza modu nagusietako bat (nahiz eta egia den azal argiaren fetitxismoa izan badela). Erligioa eta kasta-banaketa askoz zapalkuntza modu biolentzoagoak dira gurean. Interseksionalitatearen teoriak, baina, ez digu azaltzen zapalkuntza moduak desberdinak izan arren zergatik jokatzen duten funtzio berbera formazio sozial desberdinetan. Zapalkuntza desberdinak daukela esaten digu, baina ez zergatik.

Eta zergatia azaltzeko gai ez bazara, ezin duzu zapalkuntzok gaitzeko teoriarik eskaini.

Hori nola zehazten da generoaren eta arrazaren kasuan?

Interseksionalitateak esaten du generoa eta arraza zapalkuntza bereiziaz direla, baina hori hala da? Badira zapalkuntza-kategoria bereizi batzuk soilik arrazari dagozkionak, eta ez generoari? Zapalkuntza arrazoi bakar bategatik sortzen edo existitzen delako ikuspegi hori azaltzeko tresnarik ez digu eskaintzen teoria horrek, eta iruditzen zait ESTak hobeto laguntzen digula ulertzen kapitalismoak nola erabiltzen duen zapalkuntza eta zergatik behar duen zapalkuntzak egotea.

Edonola ere, esan beharra dago interseksionalitatearen teoriari

zapalkuntzaren deskribapen guztiz aberatsak eskaini dizkigutela, oso baliagarriak zaizkigunak ulertzeko arrazismoak zer-nolako ondorio kaltegarriak dituen gizartean.

Emakumeen ugalketa-eskubideen aurkako oldarraldi baten erdian gaude, abortu-eskubidearen aurkako bereziki. Nola zaio funtzionala kapitalismoari?


Galdera hau oso oso garrantzitsua da, krisi kapitalistaren une honetan klase kapitalistako bi fakzioek alternatiba bana eskaintzen baitigute. Hillary Clintonen ildoko feminismo neoliberala daukagu, batetik. Halakoak emakumeen boteretzeaz mintzo dira, baina boterea agintean dagoen klaseko emakumeentzat nahi dute soilik, ez gehiengoarentzat. Hauek abortu-eskubidearen alde daudela diote, baina ez dira konturatzen umeak izateko eskubideak daukatzun lan motarekin daukala zerikusia, eta abortua legeztatzeo borrokatzen badira ere, ez dira soldata hobeen edo bizi-baldintza hobeen alde borrokatzen.

Klase agintariaren beste erantzun bat nabarmenki misoginoa eta arrazista da, eta Trumpek, Indiako Narendra Modik eta halakoek gorpuzten dute. Esaten dizute familia tradizionala babestu behar dugula eta emakumeek balore tradizionalak edukitzea bultzatu behar dugula. Horrekin batera, supremazista zuriak kezkatuta daude zurien kopurua murrizten ari delako Ipar globalean, eta emakume zuriak ume gehiago izatea nahi dute. Beraz, kapitalismoak bi aukera horiek eskaintzen dizkigu nagusiki eta, horren aurrean, belaunaldi berriko feminista marxistok bie bizkarra eman eta klase-borrokan oinarritzen den %99arentzako feminismoa bultzatu behar dugu, emakume langileen eta munduko herri zapalduen egunero borrokekin bat egingo duen motako feminismoa,

ulertzen duena abortuaren aldeko borroka ezin dela osasunaren aldeko edo denontzako soldata hobearen aldeko borrokatik bereizi. ●

“**Arrazak eta generoak laguntzen dute langile mota batzuek lan-merkatuan duten zapalgarritasuna areagotzen**”





Borboien genetika justifikatzailea



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Paris, 1572ko ekainaren 9a. Joana Albrotekoa hil zen eta bere seme Henrike Borboikoa izendatu zuten Nafarroako errege. Handik 17 urtera, 1589an Frantziako koroa ere jantzi zuen eta, hala, Borboi etxeko Frantziako lehen erregea izan zen. Henrike III.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoa izango zen 1610ean hil zen arte.

Garaikideek *le Bon Roi* esan zioten, errege ona, alegia. Baina haren bi emazteek, Margarita Valoisekoak (1572-1599) eta Maria Medicik (1600-1610) ez zuten hain senar ontzat; ezaguna zen erregeak besteren logelak bisitatzeko zeukan ohitura. Eta, itxuraz, desleialkeriarako joera hura tradizio modukoa bihurtu zen borboitarren artean, Frantziako tronutik Espainiakora ere jauzi eginez. Bi erresumetan sasikoen zerrenda luzea utziko zuten borboiek.

XIX. mendearen erdialdean, Elisabet II.a Espainiakoa eta Frantzisko Asiskoa senarrari buruzko zurrumurru ugari zabaldu ziren gortean zein prentsan. *Los Borbones en pelota* (Borboiak larrugorritan) izeneko 89 irudi satirikoz osatutako sorta bat ere egin zuten; Elisabet, Frantzisko eta gorteko beste pertsona batzuk ageri ziren irudiotan sexu esplizitua izaten eta, adituen ustez, marrazkien nahiz testuen egileak Valeriano eta Gustavo Adolfo Bécquer anaiak izan ziren.



EZKERREAN, HENRIKE III.A NAFARROAKOA ETA IV.A FRANTZIAKOA. ESKUINEAN, "LOS BORBONES EN PELOTA" IRUDI SORTA SATIRIKOAREN ALE BAT.

Kritika umoretsua jaso zuen dinastiako erregina bakarrak, baina aurreko nahiz ondorengo erregeei pekatuak arintzeko joera izan dute kronikari zahar eta berriek, eufemismoak erabiliz -Juan Karlos I.aren "lagun bereziez" hitz egiten da oraindik- edota joera hori genetikari egotziz -2012ko artikuluko batek "borboien desleialtasunaren genea" aipatzen zuen literalki-. Eta ez dute auzitan jarri monarken "konkista" horietan emakumezkoak gogoz, presiopean ala bortxaz aritu ziren.

Eta Henrike III.ari dagokionez, erregearen ustezko ateraldi hau erabili izan da izandako labainkeriak zuritzeko: Henrrikeren aitortuak, haren jokabideak asalduta, mehatxu egin omen zion erregeari

handik aurrera ez ziola hain erraz absolutziorik emango, ontzeko benetako asmorik erakusten ez bazuen. Damututa, erregeak egunero harekin bazkaltzeko gonbitea egin zion, bazkaldu bitartean haren aholkuek bere jarrera bideratzen lagunduko ziotelakoan. Baina Henrikek apaizarentzat egunero eperra prestatzeko agindua eman zuen. Handik egun batzuetara, beti berdina jateaz nazkatuta, aitortuak zera aitortu zion: "Ohorea da egunero mahai honetan jateko gonbitea jasotzea, baina egunero eperra...". Eta erregeak honela erantzun omen zion: "Bada, niri berdin gertatzen zait erreginarekin".

Bada, askori berdin gertatzen zaio borboiekin. ●



Ardoa eta klima aldaketa

Beaune (Borgoina, Frantzia) herri ardogilean, mahats uztaren erregistroak gorde dira ia 700 urtez, 1354. urteaz geroztik. *European Geosciences Union* aldizkarian argitaratutako ikerlan baten arabera, datu horiek guztiak aztertuta, klimak ardoan duen eragina ondorioztatuta ahal izan dute. Esaterako, 1540an bero izugarria egin zuen eta uztza hainbat aste aurreratu zuten. Horrek ardoaren

zaporea baldintzatu zuen: mahatsak goiz jasotzen direnean zaila da ardoak zaporea bereizgarria lortzea eta, berandu jasoz gero, gozoagoa eta alkoholunagoa izan ohi da. Klima aldaketak eraginda, 1988tik hona uztza 13 egunetz aurreratu dute Borgoinan, batez beste. Aurrerantzean askoz gehiago aurreratu beharko dutela aurreikusten da eta, beraz, ardoaren zaporea oso desberdina izango dela. ●